



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2017/02/08

Foru Aldundiak %2 gehiago ordainduko deutsie OHZgaitik horren kudeaketea eskuordetu daben udalerriei

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur jakinarazo dauenez, Aldundiak “%2ko igoera lineala” aplikauko deutsie Ondasun Higiezinaren Zergaren konturako ordainketan, hitzarmenaren bitartez tributu hori kobretea eskuordetu eben udalerriei. Igoera horren aplikazinoa “denpora gitxi barru” gauzatuko da, beharrezkoa dan foru aginduaren bitartez.

Foru diputatuak holan erantzun deutso EH Bildu taldeak Bizkaiko Batzarretako Ekonomia eta Ogasuneko batzordean egin dauen ahozko erantzun-eskeari. Zigor Isuskiza koalizino abertzaleko batzordekideak, “udalei konturako sarrerak egiterakoan aurreko ekitaldiko erreferentziagaz jarraituko ete dauen, ala udal batzuek OHZren bidezko diru-sarrerak handitzea aurreikusten dabela hartuko dauen kontuan” galdetu deutso gaur goizean.

Aldundiak, Iruarrizagak erantzun dauenez, Eudelek Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluan joan dan urrian erakutsi eban “ardureari” erantzun behar deutso. “2017ko konturako entregak apliketako gugaz hitzarmena dauen udalerrri bakotxari 2016ko ekitaldian izan eban diru-bilketa efektiboan %2ko igoerea aplikauko deutsagu”, esan dau.

EH Bilduk erantzun-eske hori egin dau, talde horrek gobernetan dituan udalen artean egin dauen “azterketak erakusten dauenez”, udalerrriak, “%0tik %20ra” doazan OHZren diru-sarreraren artean mobiduten diralako. Isuskizak diputatuari galdetu deutso zelango doikuntzak egingo diran diru-sarrera horreek Aldundiak marketan dauen %2 gainditzen badabe, horrek gure lurraldeko “100 udal baino gehiagotan” izan daikelako eragina. “Zelango doikuntzak egingo dira etorkizunean?”, galdetu deutso, katastroko balio eta zerga tasa barriak indarrean sartu dirala kontuan izanda.

Iruarrizagak adierazo dauenez, abenduko lurraldeko kontseiluan emon eutsen Eudelek gai horren barri udalerriei. Aldunditik udalerrri guztiei zuzendutako igoera “orokorra” ezarri behar zan, udal bakotxaren barruko erabagiak “eztabaidetan hasi barik”. Datorren ekitaldian, “2017. urteko benetako diru-bilketan oinarrituta arautuko dau” Aldundiak egoerea, azaldu dauenez.

IRUZUR FISKALAREN INGURUKO TXOSTENA

Beste alde batetik, Talde Mistoak eskatuta, Ignacio Zubiri, Javier Fernández-Macho eta M^a Carmen Gallastegi UPV/EHUko katedradunek joan dan barikuan Batzarretan aurkeztu eben Ezkutuko ekonomia eta zerga-iruzurra, Euskadiko Autonomia Erkidegoan’ txostenaren balorazinoa egin dau Iruarrizagak.

Diputatuak eskertu egin dau unibersidadeko hiru irakasleen beharra, iruzur fiskala bere sailean “lehetasuna” dauen jarduketea dala azpimarratu aurretik. Txostenaren ondorioen artean, egileek eurek onartzen daben gauza bat aitatu dau, “oso gaitza dala iruzur fiskalaren erradiografia egitea”, eta pozik agertu da, Euskadiko ezkutuko ekonomia (%17koa, azterlanak erakusten dauenez), Europakoaren mailan eta Estadukoa baino 5,5 puntu beherago dagolako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Horren ostean, agerraldia, txosteneko egileek gomendatzen daberen moduan behatoki independentea sortzeko aukerea baloretan zentratu da. Puntu horregaz bat egin dabe EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Talde Mistoak, adituen eta politikako eta gizarteko eragileen parte hartzea izango leuken hori iruzur fiskalaren kontrako burrukea “indartzeko” tresna egokia izango litzatekela uste dabelako. Iruarizagaren eretxiz erakunde horrek “ez dauka zentzunik” behar hori iruzur fiskalaren jarraipenerako batzordeak egiten dauelako momentu honetan. Batzorde hori Euskadiko hiru Ogasunetako eta Lakuako Jaurlaritzako teknikariek osatzen dabe. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak bat etorri dira erakunde publikoak “bikoiztea” izango litzatekela esatean.

2016KO DIRU-SARREREN ITXIEREA

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak 2016ko diru-bilketaren datuen gainean galdetu deutso Foru Aldundiari. Talde horrek adierazoten dauenez, datu horreek “argi eta garbi erakusten dabe ez dala bete” aurrekontuetan aurreikusitakoa. Diru-bilketan izandako jatsiera konpentsetako egin beharko diran “murrizketen” gainean be galdetu dau talde popularrak. PP taldearen eskariari Talde Mistoaren beste bat gehitu jako. Bertan, hemendik aurrerako diru-bilketen aurreikuspenetan “zuhurtziagaz” jokatzeko eskatzen zan, Trumpek Estatu Batuetako agintea hartu dauela edo Bizkaiko ekonomiarako funtsezkoak diran Europako herrialde batzuetan, Frantzia edo Alemanian, besteak beste, denpora gitxi hauteskundeak egingo dirala kontuan hartuta.

Diputatuak bere erantzunean diputatuak azpimarratu dauenez, urrian argitaratu zan 2016ko diru-bilketen azkenengo aurreikuspenari jagokonez, benetako datuek “oso ondo” joan dala erakusten dabe. Iraileko diru-bilketako datuakaz aurreikusitako “6.733 milioi euroen” aurrean, Bizkaiko Ogasunak, azkenean, “6.715 milioi” jaso ditu, hau da, betetearen ehunekoa “%99,7koa” izan da. Datu horreek “ez dagola 2017ko aurrekontua berregin beharra justifiketan dauen errazoirik” erakusten dabe, ekitaldiko hilebete bat baino igaro ez dan honetan. Hori bai, Aldundiak argi eta garbi dauka zeintzuk diran doikuntzak egin behar izan ezkerro gaintu ezin daitezkezan lerro “gorriak”: “gizarte arloko gastua eta zerbitzu publikoak”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
08/02/2017

La Diputación ingresará un 2% más en concepto de IBI a los municipios que hayan delegado la gestión de este impuesto

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comunicado hoy a las Juntas Generales de Bizkaia que la Diputación aplicará una subida “lineal del 2%” en el pago a cuenta del Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI) en aquellos municipios que delegaron mediante convenio el cobro de este tributo. La aplicación de esta subida se hará efectiva “en breve” mediante la correspondiente orden foral.

El diputado foral ha respondido así a una pregunta oral formulada por EH Bildu en la comisión de Economía y Hacienda de la Cámara vizcaína. El apoderado de la coalición abertzale Zigor Isuskiza le ha interpelado esta mañana en relación a si la Diputación foral de Bizkaia mantendría “la referencia del ejercicio previo a la hora de llevar a cabo los ingresos a cuenta a los municipios”, o se tendría en cuenta que “algunos municipios esperan incrementar sus ingresos en concepto de IBI”.

La Diputación, según ha respondido Iruarrizaga, viene a atender una “inquietud” trasladada por Eudel en el Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia del mes de octubre. “Incrementaremos en un 2% la recaudación efectiva del ejercicio 2016 que tuvo cada municipio que mantiene con nosotros un convenio para aplicar las entregas a cuenta del año 2017”, ha dicho.

EH Bildu ha lanzado esta pregunta ya que “según sondeos” que han hecho entre ayuntamientos que gobiernan, los municipios se mueven en una horquilla de ingresos por IBI que van “del 0 al 20%”. Isuskiza ha preguntado al diputado qué tipo de ajustes realizará si esos ingresos superan el 2% que marca la Diputación y que pueden llegar a afectar a “más de 100 ayuntamientos” del territorio. “¿Qué tipo de ajustes se realizarán en el futuro?”, le ha preguntado teniendo en cuenta la entrada en vigor de los nuevos valores catastrales y tasas impositivas.

Iruarrizaga ha señalado que Eudel ha trasladado a los municipios esta cuestión en su consejo territorial del mes de diciembre. Desde la Diputación se debía establecer un incremento “generalizado” a todos los municipios “sin entrar a discutir” las decisiones municipales. El próximo ejercicio, la Diputación “regularizará” la situación “en base a la recaudación real del año 2017”, ha explicado.

INFORME SOBRE FRAUDE FISCAL

Por otro lado, Iruarrizaga ha hecho una valoración, a propuesta del grupo Mixto, del informe “Economía Sumergida y Fraude Fiscal en la Comunidad Autónoma Vasca” que los catedráticos de la UPV/EHU Ignacio Zubiri, Javier Fernández-Macho, y Mari Carmen Gallastegi, presentaron en la Cámara vizcaína el pasado viernes.

El diputado ha agradecido el trabajo de los tres profesores universitarios, antes de señalar que el fraude fiscal es una actuación “prioritaria” en su departamento. Entre las conclusiones del informe, el diputado se ha parado a destacar que los propios autores reconocen “lo difícil que es



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

realizar una radiografía del fraude fiscal” y se ha congratulado de que la economía sumergida del País Vasco (un 17% según el estudio) se sitúa en la media europea y 5,5 puntos por debajo del Estado.

La comparecencia se ha centrado después en valorar la creación de un observatorio independiente como recomendaban los autores del informe, punto éste al que se han sumado los grupos junteros EH Bildu, Podemos Bizkaia y Mixto, que lo ven como un "refuerzo" en la lucha contra el fraude fiscal siempre que se abra a la participación de expertos y agentes políticos y sociales. Para Iruarrizaga este ente “no tiene sentido” ya que esta labor la viene realizando ya la comisión de seguimiento del fraude fiscal, compuesta por técnicos de las tres Haciendas vascas y del Gobierno de Lakua. PNV y PSE-EE han coincidido en que sería “duplicar” organismos públicos.

CIERRE DE INGRESOS DE 2016

Por otro lado, el grupo Popular Vizcaíno interpelaba al Ejecutivo vizcaíno por los datos de recaudación de 2016 que “evidencian”, según esta formación, “el incumplimiento” de las previsiones presupuestarias, y “los recortes” que se habrán tenido que acometer para compensar la caída recaudatoria. La petición del PP se ha sumado a otra del grupo Mixto en la cual se pedía "prudencia" en las previsiones recaudatorias futuras debido al escenario "inestable" internacional que se puede generar con el mandato de Trump en EE UU o con las próximas elecciones en países europeos clave para la economía vizcaína como son Francia o Alemania.

En su respuesta, el diputado ha destacado que en la última previsión de cierre de ingresos para el año 2016 hecha pública en octubre, los datos reales indican que fue “muy bien”. Frente a los "6.733 millones de euros" estimados con datos de recaudación de septiembre, la Hacienda vizcaína ha ingresado finalmente "6.715 millones", lo que arroja un porcentaje de cumplimiento del “99,7%”, que indica que “no hay motivo que justifique rehacer el presupuesto de 2017” cuando apenas ha transcurrido un mes del nuevo ejercicio. Iruarrizaga ha recordado cuáles son las líneas “rojas” que no deben cruzar si fuera necesario acometer ajustes: "el gasto social y los servicios públicos".